

I. 2. IRAKURMENA

I.2.1. Postala



Hurrengo testua irakurri eta galderei erantzun.



Venezia, otsailak 22

Kaixo, zer moduz?

Gu oso ondo ari gara pasatzen ezkonbidaian. Aste bete daramagu Italian eta agindu nizuen bezala, postala bidaltzen dizuet.

Orain arte zorte ona izan dugu eguraldiarekin, eguzki ederra egun guztietan.

Gaur iritsi gara hiri zoragarri honetara eta orain San Marco plazan gaude. Benetan, ikusgarria da!

Gondolaz paseatzen ibili gara patxadaz – hemen ez dago autorik! – alderdi guztiak ikusten: kanalak, zubiak, elizak, plazak, jauregiak ...

Laster bukatuko zaigu oporraldia eta zortzi egun barru bueltatuko naiz.

Ordura arte, agur eta musu bana.

Andereño Arantxa



MENDIBEHEKO
IKASTETXEA
(4.B taldeko ikasleentzat)

Pagoeta kalea, 7

48300 GERNIKA
BIZKAIA

ESPAÑA



01

Nork idatzi du postala?

- ☐ Marcosek.
- ☐ Adiskide batek.
- ☐ Arantxa andereñoak.
- ☐ Italiako neska-mutilek.

02

Non dago andereño Arantxa?

- ☐ Gernikan.
- ☐ Gondola batean.
- ☐ Veneziako San Marco plazan.
- ☐ Italiako hiri miragarri bateko Pagoeta kalean.

03

Noiz bidali du postala?

- ☐ Ez du zehazten.
- ☐ Otsailaren 22an.
- ☐ Italiara iritsi bezain pronto.
- ☐ Italiara iritsi eta hilabete bat beranduago.

04

Aukeratu testua laburtzen duen esaldia:

- ☐ Oporretan denbora oso azkar igarotzen da.
- ☐ Andereñok bere ikasleak faltan botatzen ditu.
- ☐ Venezia oso polita da eta ondo pasatzen ari dira.
- ☐ Hiri horretan ez dago autorik eta dena ikusgarria da.

05

“Benetan, ikusgarria da!”. Zergatik uste duzu erabiltzen dela harridura ikurra?

- ☐ Beldurtuta dagoelako.
- ☐ Oso haserre dagoelako.
- ☐ Ikusten duena oso-oso polita iruditzen zaiolako.
- ☐ Ikusten duena oso-oso itsusia iruditzen zaiolako.

06

Eguraldiarekin zorte ona izan dutela dio, baina noiz joan dira?

- ☐ Udan.
- ☐ Neguan.
- ☐ Udaberrian.
- ☐ Udazkenean.



07

Zertara joan da Arantxa Italiara?

- ☐ Lana egitera.
- ☐ Familia bisitatzera.
- ☐ Ikasleekin bidaia bat egitera.
- ☐ Ezkondu denez, bidaiatzera eta ondo pasatzera.